


LIBURUAK

**ALTZA,
HAUTSAK
KENDUZ-VI**

Batzuen artean
ALTZAKO
HISTORIA
MINTEGIA
270 orrialde



ALTZA HERRI ETA AUZOAREN BIZIMODU ETA JENDEAZ

Urte dezente joan dira Altzako Historia Mintegiak 1988an lehenengo "Altza, Hautsa kenduz" kaleratu zuenetik seigarren lan bilduma hau plazaratu duen arte. Nolanahi ere, guztietan, garai batean Gipuzkoako herri eta gaur egun Donostiako auzo den Altza horren bizimodu, historia, kultura, oroi-men, eta pasadizoak islatzen dituzten idazlanak eta iragan hori bizi izan zuten argazki hunkigarriak jaso ohi ditu "Hautsak kenduz"ek. Azkenengoan, besteak beste, hauek hartu dute parte: Juan Gonzalez Andres, Joan Mari Iri-goien, Xanti Zapirain, Gazteluene Bertso Eskola, Manuel Zapirain, Antxon Agirre Sorondo, Josu Tellabide, Alaitz San Roman, Angel Calvo, Iñigo Landa Ijurko, Juan Carlos Lizarazu, Arantxa Benito, Joxerra, Imanol Inziarte, Larraitz Garmendia, Javier Lorenzo, Segundo Garin eta Pelegrin Gonzalezek.

**ARALARKO EGUZKI-
LOREAK. IN
EXCELSISKO SAN
MIGEL EN HISTORIA**

Jose Antonio Gorriti
Goldaratzena
UTRISQUE VASCONIAE
140 orrialde
2.000 pezeta
80 libera




SAN MIGEL ARALARKOAREN NONDIK NORAKOAK

Jose Antonio Gorriti Goldaratzek txikitatik ezagutu zuen Nafarroako base-lizarik zaharrena, bertako meza-laguntzaile izan baitzen. Liburu honetan, Baseliza horren inguruko ibilbide historiko eta artistikoa egiten du, hamabi eguzki-lore eta hiru eguzki-loretxoren bidez Aralarko kultura megalitikoak, San Migel goiangeruaren irudia, esmalteko erretaula, VIII. mende inguruan erai-akitako baselizaren berezitasunak, XII. mendean sortutako San Migelen Anaidia, Goñiko Teodosio zaldunaren elezaharra, San Migelgo elizañoak kobazuloa eta kredoa, Goñiko Teodosio zaldunaren kateak, San Migelen irudiaren urteroko ibilbidea, Aralarko ostatu zaharra (1717-1942), ostatu berria eta elizaren konponketa (1972), elizaren azken berriztatzea (1997-1998), Manuel Lekuonari eginiko omena, poemak eta beste xehetasunak azalduz.


**ZETA
Alessandro Baricco
IGELA**

112 orrialde
1.400 pezeta
56 libera



KOLDO BIGURIK EUSKARATUTAKO "ZETA"

Alessandro Baricco italiarrak 1996an Milanon plazaratu zuen "Zeta" nobela da Koldo Bigurik "Zeta" izenburuarekin euskaratu eta Igela argitaletxeak eskaintzen diguna. XIX. mendearen erdialdean zetaren merkataritzan buru-belarri sarturiko frantziar baten bizitzaren inguruko xehetasunak agertzen dira bertan: nola hasi zen zetaren ekoizpen eta salerosketa egiten; bere herriko zeta ekoizpena gehitzeko beharrezkoak zituzten zeta haren arrautzak lortzeko egin behar izan zituenak, munduaren beste aldean irudikatzen zuten Japonia urrun eta ezezagunera joatea barne; han hartutako ezagutzekin erabili behar izan zuen trikimailua; zeta bezain leuna izaten zekien emakume misterioitsu batekin bizitzea egokitu zitzaion sexu harreman berezia, eta gertaera horrek bere ezkon harremanetan izango zuen eragina...



KALITATEA

Produkturik
onenak,
MultiOpticasen

Aukerarik
zabalena
betaurreko graduatu
ukipen-lente,
audiofono eta
eguzkitako
betaurrekoetan

ZINKUNEGI
MULTIOPTICAS
ZERBITZU OPTIKOETAN 10
gehigarria DONOSTIA